# GR 38 ARDOAREN ETA ARRAINAREN IBILBIDEA RUTA DEL VINO Y DEL PESCADO

Ardoaren eta arrainaren ibilbidea antzina mandazainek eta merkatariek Bizkaiko arrantza-portu nagusien eta Arabako Errioxaren artean egiten zuten bidea zen, produktu horien eta beste batzuen merkataritzarako.

*La ruta del vino y del pescado era la ruta que antiguamente recorrían arrieros y mercaderes entre los principales puertos pesqueros de Bizkaia y Rioja Alavesa, para el comercio de estos y otros productos.*




## GOMENDIOAK
## RECOMENDACIONES

Saia zaitez etapak norbaitekin egiten, eta esan nora zoazen eta noiz etorriko zaren.

*Procura realizar las etapas en compañía y deja aviso de dónde vas y cuándo vuelves.*

Eraman beti behar den beste hornigai (ura, janaria, jantziak, botikina, mugikorra…).

*Lleva siempre equipo suficiente (agua, alimentos, ropa, botiquín, móvil…).*

Ez piztu surik, horretarako diren lekuetan izan ezik, eta erretzailea bazara gorde zure zigarrokinak.

*No enciendas fuego, salvo en los lugares destinados a ello y si fumas llévate las colillas.*

Gomendagarria da mugikorraren bateria ondo kargatuta eramatea.

*Es aconsejable llevar la batería del móvil bien cargada.*

Ez irten seinaleztatutako bideetatik, errespetatu ingurunea eta gainerako ibiltariak.

*No te salgas de los caminos señalizados, respeta el entorno y a los demás senderistas.*

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

Etapa honetan Bizkaiko lurralde historikoan sartuko gara, mendeetan zehar erromesek, mandazainek, merkatariek, bizilagunek eta beste bidaiari batzuek Otxandioko udalerria zeharkatzeko erabilitako Errege Bidetik. Arabako lautada atzean utzi eta Urkiolako Parke Naturala osatzen duten baso eta mendietan murgilduko gara.

*En esta etapa nos adentramos en el territorio histórico de Bizkaia y lo hacemos por donde durante siglos caminaron peregrinos, arrieros, mercaderes, vecinos y otros viajantes, por el Camino Real que cruza el municipio de Otxandio. Dejamos atrás las tierras llanas alavesas para adentrarnos en los bosques y montes que forman el Parque Natural de Urkiola.*

22,3 km | 450 m | 7h | MIDE 1-2-2-4




1 Ingurunean badago arriskurik
*El medio no está exento de riesgos*

2 Bidezidorrak edo norabidea adierazten duten seinaleak
*Sendas o señalización que indica la continuidad*

2 Ferra-bideetan egindako ibilaldia
*Marcha por caminos de herradura*

4 6 ordutik gorako eta 10 ordura arteko benetako ibilaldia
*Más de 6 h y hasta 10 h de marcha efectiva*

## Bidezatia / *Tramo*
## OTXANDIO > URKIOLA

km 0 ····· **OTXANDIO.** Otxandioko plazatik abiatuta, Artekaletik irten eta eskuinera egingo dugu eskolarantz Urkiola ibaia zeharkatzeko. Handik gutxira, GR 123ak gure bidea utzi eta Oletara doa, galtzada zahar batetik. Illuntxoko pagadi lepatu ederra zeharkatu eta hainbat landaketaren artean altuera hartzen joango gara. Baso hauek Otxandioko Morgaola auzoarekin lotzen zituen baso-erabilerako trenbide zaharraren trazaduratik doaz tarte batean. Errosarioleku izeneko lekuan, Oletatik datorren GR 282 Artzaintzaren bidearekin bat egingo dugu, eta Maltsaso eta Armora mendien arteko lepora iritsiko gara.

km 6,3 ····· **ITZINZELAITXIKI.** Armora mendiaren mendebaldeko hegaletik jarraituko dugu, Itzinzelainagusi inguruaino. Hortik aurrera, baso-erabilerako beste trenbide zahar baten trazadurari jarraituko diogu, beheranzko malda leunean Urkiolako Santutegia inguratzen duten pagadietara heldu arte.

km 0 ····· ***OTXANDIO.** Desde la plaza de Otxandio, salimos por Artekale y giramos a la derecha en dirección a la escuela para cruzar el río Urkiola. Al poco, el GR 123 abandona nuestra ruta para dirigirse hacia Oleta por una vieja calzada. Atravesamos el hermoso hayedo trasmocho de Illuntxo y vamos tomando altura entre diversas plantaciones siguiendo la traza de la antigua vía férrea de uso forestal que unía estos bosques con el barrio de Morgaola en Otxandio. En el lugar conocido como Errosarioleku unimos nuestros pasos al GR 282 Senda del Pastoreo procedente de Oleta, llegando al poco al collado entre los montes Maltsaso y Armora.*

km 6,3 ····· ***ITZINZELAITXIKI.** Seguimos por la ladera oeste del monte Armora alcanzando el paraje de Itzinzelainagusi. A partir de aquí volvemos a seguir la traza de otra antigua vía férrea de uso forestal que nos conducirá en suave pendiente descendente hasta los hayedos que rodean el Santuario de Urkiola.*

KMZ — GPX

ARDOAREN ETA ARRAINAREN IBILBIDEA — RUTA DEL VINO Y EL PESCADO







OTXANDIO Km. 0 — ITZINZELAITXIKI Km. 6,3 — URKIOLA Km. 9

## EZ GERATU EZAGUTU GABE!
## ¡NO TE LO PIERDAS!

Urkiolako Parke Naturala, Bizkaiaren eta Arabaren artean dagoen natura- eta paisaia-interes handiko gunea da. Bere kareharrizko gailur garaiak, pago eta artez osatutako basoak eta baserriari lotutako landazabalak dira bere paisaia ederren elementu nabarmenenak.

*El Parque Natural de Urkiola, entre Bizkaia y Álava, es una zona de gran interés naturalístico y paisajístico. Sus elevados crestones calizos, sus bosques de hayas y encinas y las campiñas asociadas al caserío son los elementos más destacables de sus bellos paisajes.*





Parkeak interes kultural handiko elementuak ere baditu (Antonio Santuen Santutegia, ikaztegiak, elurzuloak, galtzadak, etab.), eta euskal kulturaren elezahar eta sinesmen mitologiko errotuei lotuta dago (Anbotoko Dama, Atxarteko erraldoia, etab.), kristautasunaren aurrekoak.

*El Parque también alberga destacables elementos de interés cultural (Santuario de los Santos Antonios, carboneras, neveras, calzadas, etc…) y está vinculado a leyendas y arraigadas creencias mitológicas de la cultura vasca (Dama de Amboto, Gigante de Atxarte, etc…), anteriores a la cristianización.*



## TELEFONO INTERESGARRIAK
## TELÉFONOS DE INTERÉS

| | |
|---|---|
| Durangoko turismo bulegoa<br>*Oficina de Turismo de Durango* | 946 033 938 |
| Toki-Alai. Urkiolako Parketxea<br>*Centro de Interpretación de Urkiola* | 946 814 155 |
| Gorbeiako turismo bulegoak<br>*Oficinas de Turismo de Gorbeia* | Murgia 945 430 440<br>Orozko 946 122 695 |
| Larrialdiak<br>*Emergencias* | 112 SOS DEIAK |

## Bidezatia / *Tramo*
## URKIOLA > DURANGO

km 9 **URKIOLA.** Abad eta Paduako Antonio santuen tenpluaren ondotik igaro ondoren, eskuinetara gurutze-bidea hartuko dugu. Gurutze Santuaren ermitaren ondotik igaro, eskuinetara begiratokia utzi, eta jaitsierari ekingo diogu. Santigaztelu baserriaren ondoan Atxartetik datorren GR Mikeldi ibilbideak gure bidearekin bat egiten du. Untzillaitx mendiaren oinean dagoen Elosu leporaino pinudiz betetako zonalde batetik jarraitu, eta haren mendebaldeko magalean zehar, San Martin ermitatik igaroko gara Mañariarantz.

km 15,1 **MAÑARIA.** Espaloia jarraituz helduko gara Mañariako herrigune eta, harrobia igaro arte, ez dugu hau utziko. Jarraian eskuinera egin eta, Lexartzako etxe batzuen artetik igaro ondoren, Mañaria ibaia zeharkatuko dugu. Baserri baten ondoan bidexka belartsu bat hartuko dugu ondoren, Mendiola auzora bidean baso-pista bihurtzen dena. GR Mikelditik auzora iritsi gabe, ezkerretara biratu eta Etxano auzorantz jarraituko dugu. AHTaren trenbidearen azpitik igaro ondoren, Durangora iritsiko gara Tabira parkearen parera non Erdi Aroko San Pedro eliza ospetsua aurkituko dugun.

km 22,4 **DURANGO.**

---

*km 9* ***URKIOLA.*** *Tras pasar junto al templo de los Santos Antonios Abad y de Padua, tomamos el desvío a la derecha por el Vía Crucis. Pasamos junto a la ermita del Santo Cristo, dejando a la derecha el mirador, y comenzamos el descenso. Junto al caserío Santigaztelu se une a nuestra ruta el GR Mikeldi procedente de Atxarte. Continuamos por un mar de pinos hasta el collado de Elosu al pie del monte Untzillatz y seguimos su ladera oeste pasando por la ermita de San Martín hacia Mañaria.*

*km 15,1* ***MAÑARIA.*** *Llegamos por acera hasta el casco urbano de Mañaria y no la abandonamos hasta pasar la cantera. Seguimos el desvío a la derecha y, tras pasar entre varias casas en Lexartza, cruzamos el río Mañaria. Junto a un caserío tomamos una senda herbosa que pronto se torna en pista forestal en dirección al barrio de Mendiola. Sin llegar a éste por el GR Mikeldi, realizamos un giro pronunciado a la izquierda y seguimos hacia el barrio de Etxano. Tras pasar bajo las vías del TAV alcanzamos Durango a la altura del parque de Tabira, donde encontramos la legendaria iglesia medieval de San Pedro.*

*km 22,4* ***DURANGO.***

## KONTUAN HARTU BEHARREKOAK
## A TENER EN CUENTA

- Etapa honetan GR 123, GR 282 eta GR 229 ibilbideekin topo egingo dugu. Arreta berezia jarri bidegurutze hauetan, marka gorriak eta zuriak beste norabide batean ez jarraitzeko.
- *En esta etapa el GR 38 se cruza con los GRs 123, 282 y 229. Presta especial atención en estas bifurcaciones para no seguir las marcas rojas y blancas en otra dirección.*

- Behar izanez gero, La Union autobusen 18. lineak Durango eta Gasteiz lotzen ditu Urkiolako mendatetik (Tel.: 94 427 11 11)
- *En caso de necesidad, la línea 18 de autobuses La Unión comunica Durango y Vitoria-Gasteiz por el Puerto de Urkiola (Tlfno: 94 427 11 11)*

- Mañaritik Durangorako irteeran, harrobiaren parean, kamioien trafikoari arreta jarri.
- *Atención al tráfico de camiones en la salida de Mañaria hacia Durango a la altura de la cantera.*

2021: Covid 19ren pandemian gauden bitartean, eutsi eskuen higieneari eta distantzia sozialari, eta jarraitu agintariek mugikortasunari edo maskaren erabilerari buruz emandako aginduei. Horrez gain, komeni da aldez aurretik egiaztatzea ostatuen eta beste zerbitzu batzuen irekitzeko ordutegiak eta egutegiak.

*2021: Mientras nos encontremos en pandemia de Covid 19, extrema la higiene de manos y distancia social, y sigue las indicaciones de las autoridades referentes a la movilidad o el uso de mascarillas. Además, es recomendable comprobar previamente los horarios y calendarios de apertura tanto de alojamientos como de otros servicios.*

turismoa.euskadi.eus/eu/
turismo.euskadi.eus/es/

